




Azalera handietako salmentak %1,1 gehitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Irailean azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,1 gehitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Hazkunde hori elikaduraren sektorean kontzentratu zen, %2,0ko igoerarekin, eta elikaduraz bestelako produktuen salmentek %0,5 egin zuten behera.

Enplegua %2,6 handitu egin zen azalera handietan

Enplegua azalera handietan
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Irailean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile okupatuak %2,6 hazi ziren aurreko urteko hil beraren aldean, eta hilabete horretako erregistrorik onena izan zen 2015etik. Enplegua %0,5 gehitu zen abuztuaren aldean.



Txikizkako merkataritzako salmentak %8,3 hazi ziren

Txikizkako merkataritzako salmenta
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: INE.

INEren azken datuen arabera, **Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %8,3 hazi ziren irailean, aurreko urteko hil beraren aldean.** Horrela, sendotu egin da 2024ko bigarren erdian hasitako goranzko joera nabarmena.

Euskadiko familiek konfiantzari eusten diote

EAEko familien konfiantza
Indizea



Iturria: Laboral Kutxa

Laboral Kutxak egindako euskal familien konfiantza-adierazlea egonkor mantendu zen 2025eko hirugarren hiruhilekoan, -6ko balioarekin. Aurreko hiruhilekoen aldean atzerakada bat den arren, europako inguruko herrialdeetan erregistratutako mailen gainetik mantentzen da. Daturik onenak aurrezpenean eta enpleguan lortu ziren.